



Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroei menu osasuntsu eta merkeak eskainiko diegu jatetxe honetan. Lehengaiak nekazariei erosiko genizkioke. Horretaz gain, beraien enpresa txikiei laguntzeko. Horrela, sasoiko produktuen arabera menu bat sortuko dugu. Horrez gain, astelehenetik ostiralera, menu bat eskainiko dugu eta ostiraletik igandera, beste bat. Gainera, astero 2 menu desberdin egingo ditugu.

Konpontzen saiatu nahi dugun lehenengo arazoa nekazariei haien barazkiak erostea eta enpresa txikiak laguntzea da. Gehienetan lehengaiak enpresa handiei erosten dizkiegu eta guk lortu nahi duguna inguruko jendeari laguntzea eta bizi kalitate hobeko bat laguntzen edukitzea da. Bizi kalitate hobe batekin esan nahi duguna hau da: gaur egun, bizitza oso garestia da, eta, horren ondorioz, enpresa txiki asko ez dira aurrera ateratzen. Normalean, erostera goazenean supermerkatu handietara joaten gara, eta bertan erakusten diren frutak eta barazki guztiak beti perfektuak dira eta itxura ezin hobea dute. Guk supermerkatu handiek onartzen ez dituzten barazkiak erosi nahi dizkiegu nekazari horiei, itsusiak izateagatik bakarrik baztertzen baitituzte. Nekazariei sasoiko barazkiak erosiko dizkiegu, erosi ondoren gure jatetxera eramango ditugu eta barazki desberdin hoiekin menua sortuko dugu. Menu hau nutrizionista batek egingo digu, menuak osasuntsuak, ekologikoak, jatetxean eginak, hau da, ez dugu. beste enpresa handi batean egiten duten janaria erosiko, guk gure janaria prestatzen dugu eta horrela ziurtatzen dugu inguruko nekazarien barazkiekin 0-km barazkiekin eginga dagoela. Hori dela eta gure establezimenduak hemengo gastronomia bultzatuko eta eskainiko du, alegia, hemengo janari tipikoak ezagutaraziko ditugu, lehenengo praterak adibidez, bakailaoa bizkaina erara, marmitakoa, babarrun pintak, legatza saltsa berdean, purrusalda...eta postrerako, gozuak, natillak, gatzatuak... bezalako platerak ditugu.

Konpondu nahi dugun bigarren arazoa hau da: egoera ekonomiko txar batean dauden pertsonentzat gure menua bideratu, hau da, guk lortu nahi duguna pertsona horiek diru gutxi gastatzea eta janari osasuntsu batekin elikatzea da.

Azken aldi honetan, langabezia hazi da, eta, batez ere, esperientzia gabeko gazteei eta 40 edo gehiago urteetako pertsonen oso zaila egiten zaie lanpostu berriak aurkitzea. Gainera, azken urte hauetan, produktuen prezioak gorakada bat izan du, eta familia askorentzat etxetik kanpo jatea ezinezkoa da. Horregatik, gure jatetxean lanpostuak eskaintzerakoan,



ASSA IKASTOLA

*Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea*

lana auritzeko zailtasunak duten pertsonak gure lehenengo aukerak izango dira. Horrez gain, gure prezio baxuko menuak eskaintzerakoan, normalean jatetxeetaz disfrutatu ezin duteneak gure jatetxean ez dira prezioetaz arduratu beharko. Izan ere, norberaren egoera ekonomiko baxua gure jatetxera joateko oztopo bat ez izatea nahi dugu.